ANTSOAIN
ANSOÁIN
UDALA · AYUNTAMIENTO

Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información municipal
2026 APIRILA-ABRIL / Nº 48. ALEA

# ANTSOAIN



# 2026ko Inauteriak
# Carnavales 2026

**Etxebizitzaren prezioari tentsioa kentzeko planak**

**Planes para destensionar el precio de la vivienda**

**Ongietorri jendetsu eta beroa Korrikari, Antsoainen**

**Masivo recibimiento a la Korrika a su paso por Ansoáin**

**Argitaratzailea:** Antsoaingo Udala.
**Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.
**Egilea:** Heda Comunicación, S.L.
**Argazkiak:** Jon Urriza, Irene Idoate, Anne Arguiñariz.
**Ale kopurua:** 4.700 ale.
**Doako banaketa.**

**Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin.
**Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.
**Realiza:** Heda Comunicación, S.L.
**Fotografías:** Jon Urriza, Irene Idoate, Anne Arguiñariz.
**Tirada:** 4.700 ejemplares.
**Difusión gratuita.**
**D.L. - L.G.:** NA 942-2016

**JARRAI GAITZAZU SAREETAN / SÍGUENOS EN REDES**

Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin

Antsoaingo Udala Ayuntamiento de Ansoáin

# Udaltzaingoak laster osatuko du bere lantaldea

# Policía Municipal completará en breve su plantilla

Antsoaingo Udalak udaltzaingoaren egitura sendotu eta egonkortzearen ondorioz, hemendik gutxira lantaldeak 14 agente, 3 lehen agente eta udaltzainburu bat izanen ditu. Beraz, lanpostu guztiak beteta egonen dira, beste udalerri batzuei eskatutako zerbitzu emankizunei esker; gainera, beste bi agente sartuko dira, Segurtasun Eskolako prestakuntza bururaino eraman eta gero. Era berean, beste deialdi bat azkartu da 2027an beste bi postu betetzeko, etorkizunean izanen diren erretiroak ordezkatzeko eta zerbitzuaren jarraipena behar adina giza baliabiderekin bermatzeko. Aurreko guztiaz gain, bitarteko materialak ere berritzen ari dira, patruila-auto berri bat erosi eta egungo ibilgailuak eguneratu baitira, zerbitzu publikoa ematera bideratua dagoen kudeaketa modernoarekin bat.



Helburua da ahalik eta zerbitzurik onena ziurtatzea komunitateari, “Antsoain, Zaintzen duen Herria” programaren baitan. Ikuspegi horren arabera, udaltzaingoa funtsezko eragilea da, ez soilik gorabeherak artatzeko, baizik eta baita zaurgarritasun egoerak prebenitzeko, bitartekaritza lana egiteko eta garaiz atzemateko ere; bereziki, adinekoei eta beste kolektibo batzuei dagokienez.

## VIOGEN ZERBITZUA INDARTU DA

Indartu da Viogen zerbitzua ematen duen taldea (genero-indarkeriazko kasuen jarraipen integralerako sistema), lehenago agente bat ari baitzen, eta orain, aldiz, hiru. Horrela, arreta arinagoa eta pertsonalizatua eskaintzen ahalko da.

## INDUSTRIALDEKO IBILGAILUAK KENTZEN HASI DIRA

Hainbat udal zerbitzuren lan bateratuari esker, joan den urtarrilaren 27an lankidetza-hitzarmena sinatu zen hondakinak kudeatzeko Desguaces DN enpresarekin eta, horren ondorioz, udaltzaingoa industrialdetik kentzen ari da abandonaturik dauden ibilgailuak, bai eta indarrean diren ordenantzak edota legeak betetzen ez dituzten ibilgailuak ere (asegururik ez, 15 egun baino gehiago toki berean, abandonatuak daudelako zantzu nabarmenak dituzten ibilgailuak…). Kontua da ez direla gutxi industrialdean botatzen, uzten eta abandonatzen diren gauzak eta hondakinak, eta udalak arazoa konpontzeari heldu dio.

El Ayuntamiento de Ansoáin está llevando a cabo un refuerzo y estabilización de la estructura de la Policía Municipal, que alcanzará en breve la cobertura completa de la plantilla con 14 agentes, tres agentes primeros y la jefatura del cuerpo, gracias a la incorporación de nuevas comisiones de servicio solicitadas a otros municipios, y de dos agentes que pronto finalizarán su formación en la Escuela de Seguridad. Asimismo, se ha acelerado una nueva convocatoria para incorporar dos plazas más en 2027, anticipándose así a futuras jubilaciones y garantizando la continuidad del servicio con recursos humanos suficientes.

A todo lo anterior se suma la renovación de los medios materiales, con la incorporación de un nuevo coche patrulla y la actualización de los vehículos existentes, en línea con una gestión moderna y orientada al servicio público.

VioGén

El objetivo es asegurar el mejor servicio posible a la comunidad en el marco del programa “Ansoáin, Comunidad que Cuida”. Este enfoque sitúa a la Policía Municipal como un agente clave no solo en la atención a incidencias, sino también en la prevención, la mediación y la detección temprana de situaciones de vulnerabilidad, especialmente en relación con las personas mayores y otros colectivos.

## REFUERZO DEL SERVICIO VIOGEN

Se ha reforzado el equipo que presta el servicio Viogen (Sistema de Seguimiento Integral en los casos de Violencia de Género), que ha pasado de uno a tres agentes. De esta forma, se va a poder ofrecer una atención más ágil y una atención personalizada.

## RETIRADA DE VEHÍCULOS DEL POLÍGONO INDUSTRIAL

Gracias al trabajo conjunto de varios servicios municipales, que finalizó con la firma el pasado 27 de enero de un convenio de colaboración con la empresa de Gestión de Residuos Desguaces DN, la Policía Municipal ha comenzado con la retirada sistemática de vehículos en estado de abandono o que incumplan ordenanzas y/o leyes vigentes en el Polígono Industrial (falta de seguro, más de 15 días en el mismo lugar, vehículos con síntomas evidentes de abandono...). Se trata una de las actuaciones del Ayuntamiento para solventar, entre otros, el problema de los vertidos y abandonos en este espacio.

# Etxebizitzaren prezioari tentsioa kentzeko planak

# Planes para destensionar el precio de la vivienda



Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako departamentuak berariazko bost plan prestatu ditu 2026-2028rako, bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatutako udalerriekin elkarlanean (haien artean, Antsoain), etxebizitza merkatuan dagoen tentsioa arintzeko. Planak bost eremuri dagozkie eta ildo orokor batzuk antzekoak dituzte.

**Hutsik dauden etxebizitzak eta lurzorua** mugiarazi nahi dira alokairuko merkaturantz bideratzeko, Nafarroako Gobernuko alokairu poltsaren bidez, prezio eskuragarrietan eskaintzeko. Horrez gain, behar diren formulak bilatu nahi dira udalerrietan eskura dauden lurzoruak ikusarazteko eta udalerrietan ere etxebizitza berriak prezio eskuragarrietan sustatzeko.

**Etxebizitza turistikoaren arauketa.** Herri bakoitzean aztertuko da zer-nolako eragina duen etxebizitza turistikoak alokairuko merkatuan, eta, behar den tokietan, apartamentu turistikoei mugak paratuko zaizkie.

**Zerga hobariak.** Helburua da etxebizitza eskuragarrietako eskaintza handitzea. Era berean, informazioa behar bezala hedatzea sustatuko da, herritarrek, bai alokatzaileek bai maizterrek, beren eskubideak eta betebeharrak ezagutu ditzaten.

**Ikuskapena eta kontrola.** Balizko arau-hausteen kontra jardutea.

El Departamento de Vivienda, Juventud y Políticas Migratorias del Gobierno de Navarra ha elaborado en colaboración con los municipios declarados como Zona de Mercado Residencial Tensionado, entre los que se encuentra Ansoáin, cinco planes específicos para el periodo 2026-2028 para destensionar el mercado de la vivienda. Los cinco planes, correspondientes a cinco zonas, comparten algunas líneas generales.

**Movilización de vivienda vacía y suelo.** Medidas enfocadas a incorporarlas hacia el mercado de alquiler a través de la Bolsa de Alquiler del Gobierno de Navarra para ofertarlas a precios asequibles. Además, buscar fórmulas que permitan visibilizar los suelos disponibles en los municipios e incentivar la promoción de viviendas nuevas a precios asequibles en ellos.

**Regulación de la vivienda turística.** Estudio en cada localidad de la incidencia de la vivienda turística en el mercado de alquiler y establecimiento de limitaciones a los apartamentos turísticos donde sea necesario.

**Bonificaciones fiscales.** El objetivo de estas bonificaciones es aumentar la oferta de vivienda asequible. Así mismo, se incidirá en la difusión de información como un aspecto clave para que la ciudadanía, tanto personas arrendadoras como arrendatarias, conozca sus derechos y obligaciones.

**Inspección y control.** Actuaciones frente a las posibles infracciones.

## Zirkulazio eta kontribuzio zergak ordaintzeko epea, zabalik

Martxoaren 1ean ireki da zirkulazioaren gaineko zerga borondatez ordaintzeko epea, eta maiatzaren 5ean itxiko da. Lurralde kontribuzioari dagokionez, lehen seihilekoari dagokion borondatezko lehen ordainketa apirilaren 1ean hasi eta ekainaren 5ean bukatuko da.

Ordainagiriak tributuen titularren helbideetara igorriko dira. Helbideratuak ez dauden ordainagiriak, berriz, ordainagiriaren atzealdean zehaztutako edozein moduz ordaintzen ahalko dira, eta helbideratu gabeak, borondatezko epealdia bukatu eta hurrengo egun baliodunean zordunduko dira kontuan.

## Abierto el plazo de pago de los impuestos de circulación y contribución

El 1 de marzo se abrió el plazo de pago voluntario del impuesto de circulación, que finalizará el 5 de mayo. En el caso de la contribución territorial, el pago voluntario del primer semestre comenzará el 1 de abril y concluirá el 5 de junio.

Los recibos se enviarán a los domicilios de las personas titulares de los tributos. Los recibos no domiciliados podrán hacerse efectivos de cualquiera de las formas que se detallan al dorso del recibo y los no domiciliados serán cargados en la cuenta el día hábil siguiente a la conclusión del periodo voluntario.

# Energia-komunitatea eratzeko aurrerapausoak

# Nuevos pasos para constituir una comunidad energética

Antsoain aurrera doa saltoki eta herritarrendako energia-komunitate bat eratzeko bidean. Horrela, urtarril eta otsailean, bi lan saio egin ziren Komunitatea Eraldatzeko Bulegoarekin. Iruñeko Udalaren doako zerbitzu horrek Iruñerriko herritarrak, enpresak eta erakundeak bultzatu, aholkatu eta laguntzen ditu energia-komunitateak sortzeko eta kudatzeko orduan.
Laster, dirulaguntza bat eskatuko da energia-komunitatea eratzeko eta, abuztuan eta irailean, parte-hartze prozesua egiteko asmoa dago.
Bestalde, joan den otsailaren 24an, dozena bat lagunek informazioa emateko tailerrean parte hartu zuten, "Autokontsumoa: iraultza etxean hasten da" izenburupean, Nafarroako Komunitatea Eraldatzeko Bulegoak udalarekin batera antolatua. Nafarroako Gobernuak Nasuvinsa bidez bultzaturik, bulegoak energia-komunitate guztien sorrera, kudeaketa eta garapena sustatu nahi du foru lurralde osoan.

Ansoáin continúa dando pasos para constituir una comunidad energética dirigida a comercios y ciudadanía. En enero y febrero se celebraron dos sesiones de trabajo con la Oficina de Transformación Comunitaria (OTC), un servicio gratuito del Ayuntamiento de Pamplona que impulsa, asesora y acompaña a la ciudadanía, empresas y entidades de la Comarca en la creación y gestión de comunidades energéticas.
Próximamente se solicitará una subvención para la constitución de la comunidad energética y, en agosto y septiembre, está previsto que se lleve a cabo el proceso participativo.
Por otra parte, unas 12 personas asistieron el 24 de febrero en el Ayuntamiento al taller informativo "Autoconsumo: la revolución empieza en casa", ofrecido por la Oficina de Transformación Comunitaria de Navarra (OTC) con la colaboración municipal. La OTC es una iniciativa impulsada por el Gobierno de Navarra a través de Nasuvinsa y diseñada para fomentar la creación, gestión y desarrollo de comunidades energéticas en todo el territorio foral.

## Udal enplegurako deialdia

■ Udalak hainbat enplegu deialdi egiteko asmoa du 2026an eta 2027an. Udalean sartzeko deialdien artean daude administrazio-antolamenduko teknikaria, gizarte hezitzailea, komunitatea dinamizatzeko laguntzailea, haur hezitzailea, kirol arduraduna, euskara teknikaria eta berdintasun teknikaria. Aurten, gainera, barne sustapenerako bi deialdi eginen dira, hots, garbiketa arduraduna eta lorezaintza arduraduna.
Martxoan, halaber, deialdi bat argitaratzekoa zen udako atezain lanposturako aldi baterako zerrenda osatzeko (administrari-laguntzailea, B2 euskara eskakizunarekin).
Gaur egun, bost deialdi daude abian: zerbitzu publikoetako enplegatua, garbiketa peoia, administrari-ofizialeko bi (horietako bat Herritarren Arretarako Bulegorako) eta igoera lehiaketa bat udaltzaingoan.

## Convocatorias de empleo municipal

■ El Ayuntamiento prevé realizar varias convocatorias de empleo durante los años 2026 y 2027. Entre las de ingreso, figuran las de técnico/a de organización administrativa, educador/a social, auxiliar de dinamización comunitaria, educador/a infantil, responsable de deportes, técnico/a de euskera y técnico/a de igualdad. Además, en 2026 habrá dos convocatorias de promoción interna, de encargado/a de limpieza y de encargado/a de jardinería.
En marzo estaba previsto también publicar una convocatoria para lista de contratación temporal de portería de verano (auxiliar administrativo/a con perfil B2 euskera).
Actualmente están en curso cinco convocatorias: empleado/a de servicios públicos, peón/a de limpieza, dos de oficial administrativo (una de ellas para la OAC) y un concurso de ascenso en Policía Municipal.

## Antsoainek dirulaguntza bat jaso du hainbat karrika zolatzeko

■ Nafarroako Gobernuak 531.465 euroko dirulaguntza eman dio Antsoaingo Udalari, Tokiko Inbertsio Planaren bidez, Nafarroa, Arturo Campion, Harrobiak eta Harrobietako zeharkalea karrikak zolatzeko. Aurreikuspenen arabera, kostua 1.014.317 euro izanen da. Planaren bidez, gainera, 39.867 euroko dirulaguntza eman zaio iruñerriko Mankomunitateari kale horietako hornidura, saneamendu eta euri-uren sareak berritzeko. Gastua 564.096 eurokoa izanen da.
Kale horiek berrurbanizatzeko proiektuaren idazketa apiril honetan bertan esleituko da, eta enpresa adjudikatzaileak bi hilabeteko epean aurkeztu beharko du.

## Ansoáin recibe una subvención para la pavimentación de varias calles

■ El Ayuntamiento ha recibido una subvención del Gobierno de Navarra de 531.465 euros a través del Plan de Inversiones Locales (PIL) para la pavimentación de las calles Navarra, Arturo Campión, Canteras y travesía Canteras, cuyo coste total previsto es de 1.014.317 euros. Además, el PIL subvenciona con 39.867 euros a la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona para la renovación de las redes de abastecimiento, saneamiento y pluviales en esas vías, donde prevé un gasto de 564.096 euros.
La redacción del proyecto de reurbanización se adjudicará el presente mes de abril y la empresa adjudicataria dispondrá de dos meses para entregarlo.

# Sare komunitarioa sortzearen garrantzia

# La importancia de crear una red comunitaria

Udala familia aukeratuak esaten zaion kontzeptua lantzen ari da informazio eta prestakuntza gune bat eskaintzeko

Udalak familia aukeratuak kontzeptua du langai (adiskide hurbilak, bizilagunak, aisia taldeak…), hau da, odol loturarik eta lotura biologikorik gabeko ahaidego sareak dira, pertsonak bere borondatez eta kontzienteki aukeratuak edo, bestela esanik, elkarrekiko aukeraketa eta kidetasun afektiboa nabarmentzen dituen eraikuntza sozial bat. Terminoak 1991n hartu zuen indarra, Kath Weston antropologoaren lanari esker, LGTB komunitateak bere familiak sortzeari balioa eman zionean, jatorrizko familiek horrelako jendea kanporatzen zutela ikusita. Udalak, izan ere, sare komunitario bat sustatu nahi du, elkarrekiko zaintzan, babesean eta lotura emozionalean oinarriturik, bizilagun interesatuen beharrei erantzuteko, odol loturez edo lege aitortzaz haratago.

**Eskutik Familia Eskola proiektua**

Horrekin bat, Eskutik familia eskola izeneko proiektua bere lan ildoak berritzen ari da, familia aukeratuei ere informazio eta prestakuntza gune bat eskaintzeko, seme-alabak hazi, zaindu eta heztearekin lotuta dauden gaien inguruan. Horretarako, doako tailerrak antolatzen ditu, ordu eta erdikoak, lehenik teoria azaltzeko eta, ondotik, parte-hartzaileen artean eztabaidak eragiteko.

Eskutik familia eskola proiektuan “Antsoain, Zaintzen duen Herria” ekimena da gidaria, Aitzoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin eta Antsoaingo Udaleko Berdintasun arloarekin elkarlanean.



El Ayuntamiento está trabajando en el concepto de familias elegidas para ofrecerles un espacio de formación e información

El Ayuntamiento está trabajando en el concepto de las familias elegidas (amistades cercanas, vecindario, grupos de ocio…), es decir, redes de parentescos sin vínculos sanguíneos ni biológicos, elegidas conscientemente y de forma intencional, o lo que es lo mismo, una construcción social que pone el énfasis en la elección mutua y la afinidad afectiva. Este término ganó fuerza en 1991 gracias al trabajo del antropólogo Kath Weston, quien puso en valor cómo la comunidad LGBT creaba familias propias ante la exclusión de la familia de origen.

El objetivo del consistorio es promover una red comunitaria basada en el cuidado mutuo, el apoyo y la conexión emocional que atienda las necesidades de los vecinos y vecinas interesadas, más allá de los lazos de sangre o el reconocimiento legal.

**Proyecto Eskutik-Escuela de familias**

En esta línea, el proyecto Eskutik familia eskola / Escuela de familias está renovando sus líneas de trabajo para ofrecer también a las familias elegidas un espacio de formación e información sobre temáticas de interés relacionadas con la crianza, cuidado y educación de los hijos e hijas. Para ello, organiza talleres gratuitos de hora y media, que comienzan con una parte teórica para dar paso a debates entre los y las participantes.

El proyecto Eskutik- Escuela de familias está liderado por “Ansoáin, Comunidad que cuida”, en colaboración con la Mancomunidad de Servicios Sociales de Base de Ansoáin, Berriozar, Berrioplano, Iza y Juslapeña y el área de Igualdad del Ayuntamiento de Ansoáin.

ansoain CHAPISTAS
Hermanos Noain, 15
Ansoain-Antsoain
Tel. 948 590 818

Zure iragarkia
Anunciate en
Udalaren informazio aldizkaria
Boletín de información municipal
ANTSOAIN
Antsoaingo postontzi guztietan
Buzoneo a todos los vecinos/as
948 13 67 66

# Antsoainek bat egin zuen Emakumeen Nazioarteko Egunarekin

# Ansoáin se sumó al Día Internacional de las Mujeres





Udalak kale bilkura egin zuen joan de martxoaren 6an eta, bertan, Emakumeen Nazioarteko Egunari buruzko adierazpen instituzionala irakurri zen. Kale bilkuran, Ardixuri Dantza Taldeak, Ezkaba ikastetxeko ikasleek eta Rosa de Bulgaria elkarteak parte hartu zuten. Antsoaingo Emakume Taldeak, bestalde, topaketa bat antolatu zuen Lapurbide zentroan hilaren 8an, kafea eta opilak eskainita, Iruñeko manifestaziora joan aurretik, ondoren El Txarko peñan bazkalduta. Berdintasun Zerbitzuak, azkenik, hainbat jarduera antolatu zituen hilabete osoan egun horren inguruko aldarrikapena egiteko.

El Ayuntamiento llevó a cabo el pasado 6 de marzo una concentración y la lectura de una declaración institucional sobre el Día Internacional de las Mujeres. Participaron en la concentración ciudadana el grupo Ardixuri Dantza Taldea, el alumnado del Colegio Ezkaba y la Asociación Rosa de Bulgaria. Por otra parte, el grupo de mujeres de Ansoáin organizó el día 8 un encuentro con café y pastas en el Centro Lapurbide antes de acudir a la manifestación de Pamplona, y y posteriormente se realizó una comida en la peña El Txarko. El Servicio de Igualdad programó varias actividades durante todo el mes en torno a esta conmemoración reivindicativa.

## ‘Ezagutu eta zaindu zure zoru pelbikoa’ tailer aurreratua maiatzean

Heldu den maiatzeko lau larunbatetan, beste tailer bat eginen da zoru pelbikoari buruz Idakiko instalazioetan. Oraingo honetan, ordea, aurreko tailerrean parte hartu zuen jendearentzat izanen da, maila aurreratua izanen baita. Kontua da aurreko tailerrek arrakasta handia izan dutela, leku guztiak bete baitziren, parte-hartzaileek oso harrera ona emanda eta oso ongi iritzita. 9 orduko tailer teorikoa eta praktikoa izanen da, Lidón Sorianok emana zoru pelbikoko giharrak landu eta hobetu nahi dituzten emakume guztientzat. Izena emateko epea apirilaren 27tik maiatzaren 24ra bitartekoa izanen da, guztira 16 leku eskainita.

## Taller avanzado ‘Conoce y cuida tu suelo pélvico’ en mayo

Los cuatro sábados de este próximo mes de mayo se llevará a cabo en las instalaciones de Idaki un nuevo taller de suelo pélvico, pero esta vez dirigido a personas que hayan participado en este ejercicio previamente, ya que el nivel será avanzado. Este taller llega tras el éxito de los anteriores, en los que se han llenado todas las plazas con muy buena acogida y valoración. Será un taller teórico- práctico de 9 horas a cargo de Lidón Soriano, para toda mujer que quiera conocer cómo ejercitar y mejorar la musculatura del suelo pélvico. La inscripción se podrá hacer del 27 de abril al 4 de mayo y se ofrecerán un total de 16 plazas.

## Tailerra: berdintasunezko maskulinitateak

Apirilaren 20an, solasaldi-tailer bat eginen da Ostoki zentroan Antsoaingo gizonentzat, 17:30ean hasita, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz gogoeta egiteko gune bat sortzeko. Saioaren bidez, proiektua azaldu eta, maiatzeko lau astelehenetan, tailer bat antolatuko da parte hartzeko interesa dutenentzat.
Maiatzeko tailerrean izena emateko epea apirilaren 20tik 29ra egonen da zabalik, 012 telefonoan.

## Taller de masculinidades igualitarias

El 20 de abril a las 17:30 horas se celebrará en el Centro Ostoki una sesión en formato charla-taller dirigida a los hombres de Ansoáin con el objetivo de generar un espacio de reflexión sobre la igualdad entre mujeres y hombres. La sesión servirá para conocer el proyecto, y más adelante se organizará un taller los cuatro lunes del mes de mayo con quienes estén interesados en participar.
El plazo de inscripción para el taller de mayo permanecerá abierto del 20 al 29 de abril en el teléfono 012.

# Dantza integralari buruzko beste tailer bat eginen da

# Organizado un nuevo taller de danza integral

Ikusirik oso arrakastatsua izan zela urtarriletik martxora egindako tailerra, dantza integralari buruzko beste bat eginen da datozen hiru hilabetean, aurrekoan itxaron zerrendan gelditu ziren emakumeentzat. Apirilaren 15ean hasirik, tailerrak ekainera arte iraunen du, guztira hamar saio emanik, guztiak ere Elena Gómara erraztailearen eskutik.

Dantza integrala gorputz lana da eta hainbat oinarri ditu, hala nola dantza librea, mugimendu adierazkorra, gorputz kontzientzia eta, sormenaren bidez, gaitasunak garatzea. Ez da aldez aurreko esperientziarik behar parte hartzeko, ezta dantzarako trebezia berezirik ere. 18 urtetik gorakoentzat da eta adinean ez du mugarik.




A la vista del éxito que ha tenido la propuesta de danza integral que se llevó a cabo entre enero y marzo, se ha programado un nuevo taller para este trimestre para aquellas mujeres que se quedaron en lista de espera en la primera edición. El taller empezará el 15 de abril y contará con 10 sesiones hasta junio, de la mano de la facilitadora Elena Gómara.

La danza integral es un trabajo corporal basado en la danza libre, el movimiento expresivo, la conciencia corporal y el desarrollo de capacidades a través de la creatividad. Para participar no es necesario experiencia previa, ni habilidades especiales para la danza. Está orientada a mujeres mayores de 18 años y sin límite de edad.

## Clara Ingold komikoaren emanaldia apirilean / Actuación de la cómica Clara Ingold en abril

Clara Ingold komikoa Antsoainera etorriko zaigu apirilaren 25ean, bakarka ondu duen bigarren saioa emateko: “Paloma de parque”. Lanak autosuntsiketa du gogoetagai, bai norbanako gisa, bai gizarte gisa. Umorez azaltzen dituen pasadizo eta bizipen pertsonaletatik abiatuta, bere belaunaldiaren arazoez mintzo da, baina gu guztiok inplikaturik eta gizarte guztia ukiturik. Bakarrizketak, musika saioak, umore zentzugabea, ironia eta autoparodia erabiltzen ditu, autoboikotaz, harremanez, kanon estetikoaz edo emakume izateaz hausnartzeko.



La cómica Clara Ingold aterrizará en Ansoáin el 25 de abril con su segundo espectáculo en solitario. “Paloma de parque” versa sobre la autodestrucción como individuos y como sociedad. A partir de anécdotas y vivencias personales explicadas en clave cómica, Ingold habla de los problemas de una generación, la suya, que nos implican y afectan a toda la sociedad. La actriz combina monólogos con actuaciones musicales, humor absurdo, ironía y autoparodia en los que reflexiona sobre el autoboicot, las relaciones, el canon estético o el ser mujer.

# Eskutik Familia Eskolak metodologia aldatu du

# La Escuela de familias Eskutik cambia de metodología

Prestakuntzan eta esperientzietan oinarriturik, topaketa bat antolatuko da familientzat hamabostean behin, saio jarraituak eskainita

Se organizará un encuentro formativo-experiencial de familias con perioricidad quincenal de sesiones seguidas

Eskutik Familia Eskolak bilera egin du, hurrengo hilabeteetako tailer eskaintza proposatzeko. Familia Eskolak, izan ere, guraso elkarteengana eta familiendako laguntza lantzen duten arloetara jo zuen, zer behar dauden jakiteko. Ondorioa izan zen familiak prestakuntzaz aseak daudela eta horrelako guneetan jende gutxik parte hartzen duela. Beraz, metodologia aldatzea erabakirik, aurrerantzean, prestakuntza eta esperientziak oinarri dituen topaketa bat eginen da familientzat, hamabostean behin saio jarraituak eskainita. Horren bidez, familiekiko lotura sortu eta hasierako beharrei erantzungo zaie, bai eta sortuko direnei ere.
Saioetan oinarrizko hezkuntza-tresnak eskainiko dira, emozioen eta harremanen ikuspegitik. Honatx gai orientagarriak: lotura, euste emozionala, arauak, mugak, gatazkak eta haien ondorioak, eta haiek nola moldatu, hezkuntzaren presentzia eta autoritatea eta, azkenik, autonomia eta ardura. Ikuspegi hori azaltzeko, otsailaren 24an harrera gune berri bat zabaldu zen, Káeru taldeko Rebeca Noáinek dinamizatua.
Hemendik aurrera, gainera, beste toki batean arituko dira, hots, Ostoki eguneko zentro komunitarioan (erabilera anitzeko gela eta yoga), gunea erabiltzen jarraitzeko. Azkenik, aipatuko dugu Eskutik Familia Eskolak doako kontziliazio zerbitzuari eutsiko diola jende gehiagorengana iristeko eta sarbidea errazteko.

El grupo motor de Eskutik-Escuela de familias realizó en otoño una reunión con el fin de plantear la oferta de talleres para los próximos meses.
Para ello, la Escuela de familias hizo un llamamiento a las APYMAs y a las áreas que trabajan en el acompañamiento a las familias con el fin de conocer las necesidades presentes. Así se llegó a la conclusión de que las familias están saturadas con formaciones y que esos espacios tienen poca participación. Por tanto, se decidió realizar un cambio metodológico planteándolo desde un encuentro de familias formativo-experiencial de sesiones seguidas con periodicidad quincenal. Esto permitirá crear vínculo con las familias y dar respuesta a las necesidades iniciales junto a las que vayan surgiendo.
Las sesiones ofrecerán herramientas educativas básicas desde una perspectiva emocional relacional: los temas orientativos serán el vínculo, la contención emocional, las normas, los límites, los conflictos junto con sus consecuencias y la posterior reparación, la presencia educativa y la autoridad y finalmente, la autonomía y la responsabilidad. Para la introducción a este nuevo enfoque el día 24 de febrero se abrió un espacio de acogida, dinamizado y acompañado por Rebeca Noáin, de Káeru.
En este nuevo periodo realizarán también un cambio de espacio: a partir de ahora se hará en el Centro diurno comunitario Ostoki (salas Polivalente y Yoga) con el fin de seguir dándole uso al espacio. Destacar también que la Escuela de familias Eskutik mantiene el servicio de conciliación gratuita con el fin de llegar a más personas y facilitar el acceso.

## "Antsoain, Zaintzen duen Herria" ekimenaren batzar irekia / Asamblea participativa del programa "Ansoáin, Comunidad que Cuida"



Joan den otsailaren 24an, "Antsoain, Zaintzen duen Herria" ekimenaren batzar irekia egin zen, zer ikastaro, tailer eta jarduera eginen diren jakiteko. Era berean, gune egokia da jendeak iradokizunak, zalantzak eta kexak agertzeko, eta zer gai landu edo zeri buruzko informazioa jaso nahi duten esateko.

El pasado 24 de febrero tuvo lugar en el Centro Ostoki la asamblea participativa del programa "Ansoáin, Comunidad que Cuida", un espacio que permite compartir información sobre los cursos, talleres y actividades que se van a llevar a cabo, y crear un lugar de encuentro en el que las personas puedan compartir sugerencias, dudas, quejas y temas sobre los que les gustaría recibir información o charlas.

# Berriz ere zabalik jantoki komunitarioan izena emateko epea

# Nuevo periodo de inscripción en el comedor comunitario

Epea, zehazki, apirilaren 13tik 28ra bitarte egonen da zabalik. Datorren denboraldian, guztira, 40 leku eskainiko dira jantokian bertan bazkaltzeko, eta 10, etxez etxeko laguntza zerbitzurako. Hurrengo denboraldia irailean hasi eta 2027ko ekainean bukatuko da, jantokian bertan bazkaltzeko zerbitzuari dagokionez (uko egiten ez bazaio, behintzat). Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren denboraldi berria, berriz, ekainaren 22an hasiko da.

Izen-ematea Lapurbide zentroan egin behar da 10:00etatik 13:00etara eta, arratsaldean, berriz, aurrez hitzordua eskatuz (948 14 99 98ra deituz edo WhatsApp bidez: 621 196 862). Interesdunek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte: NANa, desgaitasun eta/edo mendekotasun ziurtagiria (beharrezkoa bada), dieta bereziak (beharrezkoa bada) eta 2024. urteko errenta aitorpena.

Jantokiko bertako tokiak honela banatuko dira: 10, desgaitasuna dutenendako; 10, elikadurarako; 5, errentarako, eta 15, beste aspektu batzuetarako. Etxez etxeko laguntza zerbitzuko tokiak, berriz, honela: 3, desgaitasunerako; 4, mendekotasunerako; 1, elikadurarako; 1, errentarako, eta 1, beste aspektu batzuetarako.

Tarifei dagokienez, ohiko prezioa 7,70 euro da menu bakoitzeko, baina badira tarifa murriztuak familiaren per capita errentaren arabera, azken urtealdi fiskalean izaniko diru-sarrera gordinen arabera kalkulatua.



El comedor comunitario abre del 13 al 28 de abril el nuevo periodo de inscripciones para las 40 plazas in situ y las 10 del servicio de atención a domicilio (SAD) que ofrecen de cara al curso que viene. En septiembre dará inicio el nuevo periodo del comedor in situ y las plazas se mantendrán hasta junio de 2027 (a menos que se rechacen). En cuanto al SAD, el nuevo periodo empezará el 22 de junio.

La inscripción se podrá hacer en el Centro Lapurbide de 10:00 a 13:00 y por la tarde con cita previa (llamando al 948 14 99 98 o a través del WhatsApp 621 196 862). Las personas interesadas deben aportar la siguiente documentación: DNI, certificado de discapacidad y/o dependencia (si fuese necesario), dietas especiales (si fuese necesario) y declaración de la renta del año 2024.

Las plazas in situ se repartirán de esta manera: 10 para discapacidad, 10 para alimentación, 5 para renta y 15 para otros aspectos. Las plazas SAD serán 3 para discapacidad, 4 para dependencia, 1 para alimentación, 1 para renta y 1 para otros aspectos.

Respecto a las tarifas, el precio normal por menú es de 7,70 euros, pero existen tarifas reducidas según la renta per cápita familiar, que se calcula a partir de los ingresos brutos del último ejercicio fiscal declarado.

## Udal bultzada, boluntario talde bat sortzeko

Antsoaingo Udalak boluntario talde bat sortu nahi du herrian, "Antsoain, Zaintzen duen Herria" ekimenaren bidez.

Taldean parte hartzeko interesa dutenek izena eman beharko dute, dela udal lokaletan, dela informazio honekin batera ageri den QRan. Argibideak 948 14 99 98 zenbakian edo cuidados@ansoain.es posta elektronikoan.

## Impulso municipal a la creación de un grupo de voluntariado

El Ayuntamiento de Ansoáin está impulsando a través del programa "Ansoáin, Comunidad que Cuida" la creación de un grupo de personas voluntarias en la localidad.

Las personas interesadas en tomar parte en esta iniciativa pueden inscribirse en diferentes locales municipales o a través del QR que acompaña a esta información. Más información en el teléfono 948 14 99 98 o en el correo electrónico cuidados@ansoain.es.

TALLERES PAMPLONA
Hermanos Noáin, 58 · Ansoáin · T 848 411 434
www.tallerespamplona.com
Reparación de carrocería y pintura
Averías mecánicas y eléctricas
Mantenimiento de todas las marcas
10 Coches de sustitución
Amplio horario contínuo de lunes a viernes, de 07:00 a 18:00 h
Descuentos en mantenimiento, franquicias y por ser cliente habitual

# Korrikak Antsoain gurutzatu zuen

# La Korrika pasó por Ansoáin

Aurtengo edizioan, hainbat jarduera antolatu dira gure herrian, Korrikaren inguruan. Horrela, otsailaren 28an, hainbat bakarrizketagilek "BostOK!" umorezko lana eman zuten euskaraz Arrikulunka elkartean eta, ondoren, afaria egin zen. Martxoaren 14an, larunbatarekin, "Korrikaren Eguna" ospatu zen, hainbat ekitaldiren bidez: kalejira Erraldoi Konpartsarekin, karrikadantza saio bat, pintxo-potea goizean eta familiendako ikuskizun bat arratsaldean, Loza kulturgunean.
Korrikak martxoaren 22ko eguerdian gurutzatu zuen gure herria, jendetza handiak parte hartuta eta giro ezin hobean.










En esta edición se han organizado varias actividades en Ansoáin en torno a la Korrika. El 28 de febrero tuvo lugar una actuación de monologuistas en euskera con la obra de humor "BostOK!" en la sociedad Arrikulunka, seguida de una cena. El sábado 14 de marzo se celebró el "Día de la Korrika", que incluyó un pasacalles con la Comparsa de Gigantes, una sesión de Karrikadantza, un pintxo-pote por la mañana y un espectáculo para familias en el Centro Cultural Loza por la tarde.
La Korrika atravesó Ansoáin el domingo 22 de marzo al mediodía con una participación masiva y un excelente ambiente.

## 'Euskararen udaberria' dator ate joka / Nueva edición del programa 'La primavera del euskera'

■ 'Euskararen Udaberria' ekimena Antsoainen eginen da apirilaren 27tik maiatzaren 10era, jarduera sorta zabalarekin, hots, musika emanaldiak, antzerkia, ipuin-kontalariak, liburu aurkezpenak, bertso afaria, kirol saioak karrikan, eta bestelakoak, euskara gure kaleetara ateratzeko.
Bestalde, maiatzaren 9an, larunbatarekin, Euskararen Eguna eginen da.

■ El programa 'La primavera del euskera' se celebrará este año del 27 de abril al 10 de mayo en Ansoáin con un amplio programa de actividades que incluye actuaciones musicales, teatro, sesiones de cuentacuentos, presentaciones de libros, cena con bertsolaris, deporte en la calle y otras actividades con el objetivo de sacar el euskera a nuestras calles.
Por otra parte, el sábado 9 de mayo se celebrará una nueva edición del Día del Euskera.



# 'ERA Eskola' familiendako eskolaren bosgarren edizioa

# Quinta edición de la escuela para familias 'ERA Eskola'

Euskarabideak eta Nafarroako udal aunitzek ‘ERA Eskola’ ekimena abiarazi zuten 2020an, eskolan euskaraz ikasten duten haurren gurasoei zuzenduta. Azken buruan, eskola bat da, eta adituek hazkuntzarekin, euskararekin eta hezkuntzarekin lotutako gaiak jorratzen dituzte.
Ekimenaren bosgarren edizioan hainbat gai landuko dira; adibidez, nola sendotu euskara etxean, haur berria etorri baino lehen; familiek euskal kulturgintzaren transmisioan duten eginkizuna; eta album ilustratuek euskarazko irakurketa sustatzeko duten balioa. Hizlariak dira: Estitxu Fernández psikologo perinatala, idazlea eta bertsolaria; Gotzon Barandiaran euskal kulturgintzan aditua, eta Saroa Bikandi, irakurzaletasuna sustatzeko bitartekaria, ipuin kontalaria eta haur eta gazte literaturan aditua. Bideoak Era.eus ekimenaren YouTubeko bi kanaletan daude eskura.

Euskarabidea y numerosos municipios navarros pusieron en marcha en 2020 el proyecto ‘ERA Eskola’, una escuela para familias dirigida a padres y madres de niños y niñas que estudian en euskera en la escuela. En este recurso, personas expertas abordan temas relacionados con la crianza, el euskera y la educación.
En esta quinta edición se abordan diversos temas, como el fortalecimiento del euskera en casa antes de la llegada del recién nacido, el papel de la producción cultural vasca y la selección de álbumes ilustrados. Las y los ponentes son Estitxu Fernández, psicóloga perinatal; Gotzon Barandiaran, especializado en la producción cultural en euskera; y Saroa Bikandi, mediadora, narradora y experta en promoción de la lectura y la alfabetización infantil y juvenil. Los vídeos están disponibles en los dos canales de YouTube de Era.eus.




ESTITXU FERNÁNDEZ

GOTZON BARANDIARAN

SAROA BIKANDI



# INAUTERIAK
# CARNAVALES
































JACK
LILY
DUSTIN




Ayuntamiento de Ansoain
Antsoaingo Udala







# Larunbatetako gazte jardueren arrakasta

# Éxito de las actividades para jóvenes de los sábados

Oso arrakastatsuak izaten ari dira Harrobik Gure kaleak izenburupean antolatu dituen jarduerak. Izan ere, martxoan, sukaldaritza tailer bat egin da, bai eta Ezkaba ikastetxeko baratzean eta oilategian laguntzeko auzolana ere.
Apirilean, proposamen interesgarriak eskainiko zaizkie gazteei; besteak beste, antzara joko erraldoi bat hilaren 18an, Harrobin. Hilaren 22an, berriz, animaliak babesteko zentrora joanen dira, animalia espezieak nola hartzen eta zaintzen dituzten ikusteko.

Gure kaleak, las actividades de los sábados que organiza Harrobi están siendo un éxito. En marzo se han celebrado un taller de cocina y un auzolan para echar una mano en la huerta y el gallinero del Colegio Ezkaba.
Y en abril está ofreciendo interesantes propuestas a la juventud, entre ellas, un juego de la oca gigante el día 18 en Harrobi y la visita el día 22 a la protectora de animales, donde el grupo conocerá la labor de acogida y cuidado que realizan con diferentes especies de animales.

## Eguraldi txarra baina giro ona Inauterietan / Mal tiempo pero buen ambiente en Carnaval

■ Eguraldi txarra eginik ere, Antsoaingo gazteek ez zuten galdu inauteetan parte hartzeko aukera. Kanpoan hotz baina barnean giro, Harrobik jarduera guztiak Ezkaba ikastetxera lekualdatu baitzituen. Antsoain Ladantuz ekimeneko partehartzaileek pregoi bat irakurri eta, ondoren, Gaztetxiki, Gaztetxiki +, Gaztehandi eta Gazteskola taldeek hiru dantza eman zituzten. Jende asko bildu ez bazen ere, bertan zeudenek giro ezin hobea gozatu zuten. Kalejira ere jostalekuan egin zen, txarangak lagundurik eta bazterrak ederki giroturik.

■ La juventud de Ansoáin no quiso perderse los Carnavales a pesar del mal tiempo. Para capear el temporal, Harrobi trasladó todas sus actividades al patio del colegio Ezkaba. Allí dieron inicio a la fiesta con un pregón leído por los y las participantes de Antsoain Ladantuz y, a continuación, los grupos Gaztetxiki, Gaztetxiki +, Gaztehandi y Gazteskolas ofrecieron tres bailes. Aunque no se congregó mucho público, los y las asistentes disfrutaron de un gran ambiente. La kalejira también se hizo en el patio y estuvo acompañada de la txaranga, que ofreció un recital muy animado.



## Antsoaingo Auzoen arteko Eguna, gizarte harremanak sustatzeko

■ Harrobin Auzoen arteko Eguna eginen da heldu den apirilaren 25ean, hainbat jarduera eta dinamikaren bidez. Ohi denez, Gazteskolako neska-mutilak Iruñerriko Arreta eta Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuekin bilduko dira auzo edo herri bakoitzeko gazteen arteko harremanak hobetzeko eta, era berean, gizarte harremanak inguru hurbiletik haratago egiteko. Goizean, elkarte guztiak Harrobi zentroaren inguruan bildu, eta hainbat jolas eta ekitaldi eginen dira elkar ezagutzeko. Gero, bazkarian elkartu eta, arratsaldean, bestari jarraipena emanen diote.

## Día Interbarrios en Ansoáin, una cita para fomentar las relaciones sociales

■ Harrobi acogerá el próximo 25 de abril el Día Interbarrios con diversas actividades y dinámicas. Como viene siendo habitual, los chicos y chicas de Gazteskola se reunirán con los diferentes Servicios de Atención y Prevención Comunitaria de la Comarca de Pamplona para mejorar las relaciones entre la juventud de cada barrio o localidad y establecer relaciones sociales más allá del entorno cercano. Por la mañana, las asociaciones se reunirán en los alrededores del Centro Harrobi, donde organizarán diversos juegos y actos para conocerse. Después, celebrarán una comida y continuarán la fiesta por la tarde.

# 2026ko hitzarmenak sinatu dira herriko klubekin

# Firmados los convenios 2026 con los clubes locales

Antsoaingo Udalak eta herriko kirol klub andanak denboraldi honetako kirol hitzarmenak sinatu berri dituzte, haien bidez hainbat kirolen praktika sustatu eta arautzeko. Kasuan kasuko kirola bultzatzeko klub hitzartuek judoan, gimnasia erritmikoan, mendi eskolan, halterofilian, triatloian, herri kiroletan, futbolean eta saskibaloian dihardute.

Hitzarmenen bitartez, instalazioen lagapena, udalaren diru ekarpena eta kluben betebeharrak arautzen dira, arreta berezia jarrita oinarrizko kirolaren sustapenean, indarkeriaren aurreko zero tolerantzian, teknologia digitalen erabilera egokian, genero berdintasunean eta euskaran.

Klubek hainbat baldintza berri dituzte, hala nola lankidetzan aritzea Udalaren Kirol anitza Eskolarekin, Kirolaren Mahaian parte hartzea (kirol jarduerak planifikatzeko eta kudeaketa parte-hartzailea egiteko) eta euskara erabili eta sustatzeko plana egitea; adibidez, beste datu batzuen artean, jaso beharko dute zenbat lagunek eskatu duten jarduera euskaraz egitea eta zenbat entrenatzaile diren euskaldun.

Futbol eta saskibaloi klubetan, gainera, berariaz debekatu dira klubean sartzeko maila probak.

El Ayuntamiento de Ansoáin y varios clubes deportivos locales han firmado recientemente los convenios deportivos de la actual temporada, a través de los cuales se fomenta y regula la práctica de varias modalidades deportivas. Concretamente, los clubes conveniados con el Ayuntamiento para el impulso de su deporte han sido los de judo, gimnasia rítmica, mendi eskola, halterofilia, triatlón, herri kirolak, fútbol y baloncesto.

Mediante estos convenios se regulan aspectos como la cesión de instalaciones, la aportación económica municipal y las obligaciones de los clubes, con especial atención al fomento del deporte base, la tolerancia cero ante la violencia, el uso adecuado de las tecnologías digitales, la igualdad de género y el euskera.

Entre los nuevos requisitos para los clubes, figuran la colaboración con la Escuela Municipal de Multideporte, la asistencia a la Mesa del Deporte que tiene como fin la planificación y gestión participativa de las actividades deportivas, y un plan de uso y fomento del euskera en el que se recogerán, entre otros datos, el número de inscripciones que han solicitado hacer la actividad en euskera y el número entrenadores/as euskaldunes.

Además, en los clubes de fútbol y baloncesto se prohíben expresamente las pruebas de nivel para acceder al club.




Antsoain kirol arloko LGTBIfobiaren kontra agertu da / Ansoáin se posiciona contra la LGTBIfobia en el Deporte

■ Otsailaren 19a LGTBIfobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna da Kirolean, hau da, kirol arloko bazterkeriari aurre egiteko eguna, eta berdintasuna, errespetua eta aniztasuna kirolean sustatzekoa, ingurune seguruak bermatuz. Egunaren karira, ondoko asteburuan, herriko jokalariek pankartak atera zituzten, sexu-joeraren edo genero-identitatearen inguruan kirol arloan eragindako bazterkeria mota ororen aurka eta aniztasunaren alde.

■ El 19 de febrero se conmemora el Día Internacional contra la LGTBIfobia en el Deporte, una jornada para combatir la discriminación y promover la igualdad, el respeto y la diversidad en el ámbito deportivo, garantizando entornos seguros. Para celebrarlo, el fin de semana posterior, jugadoras y jugadores de los clubes locales exhibieron pancartas rechazando cualquier tipo de discriminación por orientación sexual o identidad de género en el deporte y reivindicando la diversidad.

## Igerilekuak: bere horretan diraute udako sarrerek eta abonuek

■ Udalak bere horretan utziko ditu udako sarreren eta abonuen prezioak igerilekuetarako. Eguneko sarrera 13,50 euro da 16 urtetik gorakoentzat, eta 9,50 euro, adin horretatik beherakoentzat. Udako abonuak, berriz, 150 euro balio du 16 urtetik gorakoentzat, eta 95 euro, beherakoentzat. 65 urtetik gorakoek 78 euroan erosten ahalko dituzte abonuak, baldin eta familia-unitatearen per capita errenta gutxieneko soldatarena baino txikiagoa bada.

Udaldia ekainaren 5ean hasi eta irailaren 6an bukatuko da. Bainu ordutegia, 10:00etatik 21:30era. Igerilekuko jaia uztailaren 31n eginen da.

## Se mantienen los precios de las entradas y abonos de verano a las piscinas

■ El Ayuntamiento mantendrá los precios de las entradas y abonos de verano para las piscinas. La entrada diaria es de 13,50 euros para mayores de 16 años y de 9,50 euros para menores de esa edad, y el abono de verano cuesta 150 euros para mayores de 16 y 95 euros para menores. Las personas de más de 65 años con una renta per cápita de la unidad familiar inferior a salario mínimo podrán adquirir abonos por 78 euros.

La temporada de verano se iniciará el 5 de junio y finalizará el 6 de septiembre, con un horario de baño de 10:00 a 21:30. La fiesta de la piscina tendrá lugar el 31 de julio.

# Antsoain, Udal Kirol Zerbitzurik Onenarendako saria

# Ansoáin, premio al Mejor Servicio Deportivo Municipal

Udalak Udal Kirol Zerbitzurik Onenarendako saria jaso du Nafarroako Kirolaren 2025eko Sarietan, Nafarroako Gobernuko Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak antolaturiko ekitaldian. Sari banaketa joan den otsailaren 26an egin zen, Navarra Arenan, eta hantxe izan ziren Marta Díez alkatea eta Alfredo Osés udaleko kirol teknikaria. Sariaren bidez, udal programetako jarduera fisikoaren kalitatea nabarmendu nahi izan da, herritarren berariazko beharretara egokitua baitago.




Kirol Zerbitzuak, izan ere, lan egiten du herritarren artean jarduera fisikoa sustatzeko eta ohitura osasungarriak sortzeko, jendeak ongizate eta bizi-kalitate hobeak izan ditzan. Datozen urteetako erronka da jarduera fisikoa jende guztiarendako bermatzea, berariazko programa eta proiektuen bidez, kontuan hartuz biziaro guztiak, pertsona ahulak edo baliabide gutxien dituztenak, osasun arazoak dituztenak eta dibertsitate funtzionala duten pertsonak; halaber, bestelako alderdiak ere lantzea, hala nola euskarazko kirola eta emakumezkoen kirola bultzatzea (batez ere, federatua), LGTBI+ kolektiboarekiko sentsibilizazio lana egitea, etab. Orain arte bezala, hori guztia egin nahi da kirol eskaintza adin eta behar guztietara egokitzeko gauza diren langile kualifikatuen bidez.

Udalarekin batera, herriko bi bizilagun ere saritu zituzten: **Sandra Pérez Abadiano**, hots, "Otra mirada" gimnasia erritmiko egokituko taldeko teknikaria, eta **Mikel Bidaurre Barandalla**, "Kirolaren balioak" saria eskuratutakoa, txirrindularitza lehiaketa batean izaniko istripu larriaren ondotik egin duen kirol ibilbidea nabarmentzeko, ezbeharrak goitik behera aldatu baitzion bizitza, aulki-gurpildunean ibili behar izateraino.

El Ayuntamiento ha sido reconocido con el Premio al Mejor Servicio Deportivo Municipal en los Galardones del Deporte de Navarra 2025, otorgados por el Instituto Navarro del Deporte y de la Actividad Física del Gobierno de Navarra. A la entrega, que tuvo lugar el pasado 26 de febrero en el Navarra Arena, acudieron la alcaldesa, Marta Díez, y el técnico municipal de Deportes, Alfredo Osés. La distinción destaca la calidad de la actividad física de los programas municipales, adecuados a las necesidades específicas de la población.



Desde el Servicio de Deportes se trabaja para fomentar la actividad física y crear hábitos saludables en la ciudadanía que redunden en un mayor bienestar y calidad de vida. De cara a los próximos años, afronta el reto de garantizar una actividad física a toda la población a través de programas y proyectos que alcancen a todas las etapas de la vida, a las personas desfavorecidas o con menos recursos, a quienes padecen problemas de salud, a personas con diversidad funcional, deporte en euskera, impulso del deporte femenino (sobre todo federado), trabajo de sensibilidad con colectivo LGTBI+, etc. Para ello seguirá contando con personal cualificado capaz de adaptar la oferta deportiva a todas las edades y necesidades.

Junto al Consistorio, también fueron galardonados una vecina y un vecino de la localidad: la técnica del equipo de gimnasia rítmica adaptada "Otra mirada" **Sandra Pérez Abadiano** y **Mikel Bidaurre Barandalla**, que obtuvo el galardón "Valores del Deporte" para destacar su trayectoria deportiva tras el grave accidente sufrido en una competición ciclista que cambió su vida y le llevó a utilizar silla de ruedas.

## Instalazio jasangarriagoak eta irisgarriagoak / Instalaciones más sostenibles y accesibles

Udalaren kirol instalazioen ingurumen eragina murrizteko asmoz, duela gutxi led argiak jarri eta birziklapena errazten duten paperontzi berriak paratu dira, hondakinak jatorrian bereizteko aukera ematen baitute.

**Idakirako sarrera, QR bidez**

Martxoaren bukaeraz geroztik, txartel birtualaren bidez sar daiteke udal instalazioetan. Erabiltzaileak aplikazio bat jaitsi beharko du eta, hartan, bi QR daude: bata, sartzeko, eta bestea, ateratzeko, eta irakurgailuari erakutsi beharko dio. Dena den, instalazioetan txartel fisikoarekin ere sar daiteke.

Berrikitan, gainera, sarrera-ate berriak paratu dira Udaletxe plazatik sartzeko, irisgarritasuna bermatze aldera.

Con el fin de reducir el impacto ambiental de las instalaciones deportivas municipales, recientemente se ha colocado iluminación led y se han sustituido las papeleras por otras que facilitan el reciclaje mediante la separación de residuos en origen.

**Acceso a Idaki mediante QR**

Desde finales de marzo ya se puede entrar a las instalaciones deportivas municipales mediante un carné virtual. La persona usuaria se descarga una aplicación que le proporciona un QR de entrada y otro de salida que mostrará a un lector. También puede accederse a las instalaciones con el carné físico.

Además, recientemente se han instalado nuevas puertas de entrada desde la plaza consistorial para garantizar la accesibilidad.

## Haurrendako futbol campusa, Aste Zurian

5-12 urte arteko 24 haurrek parte hartu zuten otsailean C.F. Gazte Berriak klubak antolatutako futbol campusean, inauteetako eskola oporraldian. Teknikak lantzearekin batera, jarduera ludikoagoak egin zituzten, hala nola puzgarriak, punteria-olana edota kirol anitza, besteak beste.
Klubaren hurrengo campusak Aste Santuko eta udako oporraldietan eginen dira.
Nabarmendu behar da, bestalde, Gazte Berriak klubeko bi jokalarik selekzio autonomikoen Espainiako txapelketan parte hartu zutela, otsailean: Elur Elustondok 14 urtez azpikoetan eta, Carlos Velascok, 16 urtez azpikoetan.



## Campus infantil de fútbol en la Semana Blanca

Un total de 24 chicos y una chica, de edades comprendidas entre los 5 hasta y los 12 años, participaron en febrero en el campus de fútbol organizado por C.F. Gazte Berriak con motivo de las vacaciones escolares de carnaval. Durante esos días tuvieron ocasión de combinar el aprendizaje de la técnica con actividades más lúdicas, como los hinchables, la lona de puntería o el multideporte, entre otras.
Los próximos campus del Club tendrán lugar en vacaciones de Semana Santa y de verano.
Por otra parte, cabe destacar que dos jugadores de Gazte Berriak participaron en febrero en la segunda fase del Campeonato de España de Selecciones Autonómicas: Elur Elustondo en categoría Sub14 y Carlos Velasco en Sub 16.

## Pilates saio gehiago ikasturtea amaitu arte

Jende askok pilates eskatzen duela ikusirik, bi saio gehiago eskainiko dira martxoaren 2tik ekainaren 30era Mendikale 8ko aretoan, astelehenetan, 19:00etatik 20:00etara eta 20:00etatik 21:00etara. Horrenbestez, guztira, 14 pilates saio emanen dira kirol abonuaren barnean, hainbat ordutegitan.

## Más sesiones de pilates hasta fin de curso

Con el fin de atender a la alta demanda de la actividad de pilates, desde el 2 de marzo al 30 de junio se ofrecerán dos sesiones más de pilates en el local de Mendikale 8 los lunes de 19:00 a 20:00 y de 20:00 a 21:00 horas. Con estas, son 14 las sesiones que se ofrecen de esta actividad dentro del abono deporte en distintos horarios.

## 600etik gora ikusle, Soka&Blockaren finalean

Antsoaingo udal rokodromoan Soka&Blockaren zortzigarren edizioaren soka-proba jokatu zen, joan den otsailaren 28an. Adin guztietako 150 parte-hartzaile baino gehiago aritu ziren, 11 urtez azpikoen kategoriatik beteranoenera. Lehenik, sailkapen probak gainditu behar izan zituzten, 4+ - 7c arteko zailtasuneko eskalada bideak, eta final handian, 600 ikusle baino gehiago izan ziren. Argiek, fokuek eta musikak dena ederki giroturik, Sara San Martinek irabazi zuen emakumezkoetan, eta, Ander Del Ríok, gizonezkoetan.
Finala jokatu baino lehen, Soka&Blockaren antolatzaileek Pablo Estremera omendu zuten, duela gutxi lan istripuan hildako eskalatzailea.



## Más de 600 personas presenciaron la final del Soka&Block

El rocódromo municipal de Ansoáin acogió el 28 de febrero la prueba de cuerda de la octava edición del Soka&Block. Más de 150 participantes de todas las edades, desde la categoría sub 11 a veterana, disfrutaron de las vías clasificatorias propuestas con dificultades desde el 4+ al 7c, y cerca de 600 personas asistieron a la gran final con luces, focos y música. En un ambiente espectacular, Sara San Martín se llevó el triunfo en categoría femenina y Ander Del Río en la masculina.
Antes de la final, la organización del Soka&Block rindió un homenaje a Pablo Estremera, escalador fallecido recientemente en accidente laboral.

## Gazte Berriak Halterofilia, bosgarren Espainiako Kopan

Gazte Berriak Halterofilia Klubeko 16 urtez azpikoen taldea 16 urtez azpikoen Espainiako Kopan aritu zen Paracuellos de Jaraman (Madril), joan den otsailaren 7an. Iker Urmenetak, Unai Aguirrek, Xabier Argüellesek, Josu Martínek eta Unai Fernándezek bosgarren postua lortu zuten, txalogarria benetan.



## Halterofilia Gazte Berriak, quinto en la Copa de España

El equipo Sub 16 masculino del Club de Halterofilia Gazte Berriak se clasificó para la Copa de España Sub 16 disputada en Paracuellos de Jarama (Madrid) el pasado 7 de febrero. Los levantadores Iker Urmeneta, Unai Aguirre, Xabier Argüelles, Josu Martín y Unai Fernández lograron una meritoria quinta plaza.

# Memoriaren Astea, ekitaldiz betea

# Una Semana de la Memoria llena de actividades

Maiatzaren 14tik 24ra eginen da, udalak eta Txinparta elkarteak antolaturik

Aurten ere, Memoriaren Astea eginen da maiatzean, hilaren 14tik 24ra, hain zuzen ere. Udalak, zehazki, hilaren 14tik 21era bitarteko jarduerak antolatuko ditu, eta Txinparta elkarteak, berriz, 22tik 24ra artekoak.
Egitarau osoa maiatzeko kultur agendan argitaratuko da, baina gauza batzuk aipa ditzakegu. Maiatzaren 21ean, adibidez, eta Sendaberri zikloaren baitan, "Mujeres que cantan tras del balcón" antzezlana taularatuko da, memoria historikoaz eta emakumeek kulturan duten eginkizunaz gogoeta eragiteko. Adriana Salvok idatzia eta zuzendua, lanak ederki uztartzen ditu autofikzioa, antzerki dokumentala eta objektu-antzerkia, Erdi Aldeko emakume sortzaileek Errepublika garaian izaniko bizitzaren erretratua egiteko, haiek ere beren talentua jarri baitzuten publikoaren zerbitzuan gerra zibilaren ondotik. Lanak gure aurreko emakumeen iraganeko oihartzunak lotu nahi ditu gure orainarekin, emakumeek kulturan egiten duten lanaz eta dagokien lekuaz hausnarketa eragiteko.
Maiatzaren 17an, berriz, igandearekin, La Fuga Mendi Lasterketa eginen da, hots, 18 urtetik gorako atleta, mendizale edo kirolari federatu edo ez federatu guztiendako kirol jarduera. Ibilbideak 53 kilometro izanen ditu eta 1.800 metroko desnibel positiboa. Goizeko 7:00etan abiatuko da Antsoaindik eta Berriozartik, irteera neutralizatuan. Irteera ofiziala, berriz, goizeko 8:00etan, Ezkaba mendiko kaskoan. Lasterketa GR 225 "La Fuga de Ezcaba- 1938 - Ezkabako Ihesa" ibilbide homologatuan barna eginen da, Garrues, Orrio, Olaitz, Olabe, Leranotz, Saigots eta Zilbeti herriak gurutzatuta, Urepelen bukatzeko.



Se celebrará del 14 al 24 de mayo con programación municipal y de la asociación Txinparta

En mayo se celebrará un año más la Semana de la Memoria, que tendrá lugar del 14 al 24. Desde el 14 hasta el 21 las actividades estarán organizadas por el Ayuntamiento, y del 22 al 24 por la Asociación Txinparta.
El programa completo se publicará en la agenda cultural de mayo, pero ya se puede adelantar que el día 21 y dentro del ciclo Sendaberri, se podrá disfrutar de la obra "Mujeres que cantan tras del balcón", una producción teatral que invita a reflexionar sobre la memoria histórica y el papel de las mujeres en la cultura. Escrita y dirigida por Adriana Salvo, la obra combina autoficción, teatro documental y teatro de objetos para retratar la vida de mujeres creadoras de la Zona Media durante la República, quienes compartieron sus talentos con el público tras la Guerra Civil. La obra busca conectar los ecos del pasado de las que nos precedieron con nuestro presente, invitando a reflexionar sobre el papel de las mujeres en la cultura y el lugar que le corresponde.
Y el domingo 17 de mayo se celebrará la carrera de montaña "La Fuga Mendi Lasterketa", una actividad deportiva abierta a cualquier persona atleta, montañera o deportista, federada o no federada, mayor de 18 años. El recorrido contará con 53 kilómetros y 1.800 metros de desnivel positivo, y arrancará a las 7:00 con salida neutralizada desde Ansoáin y Berriozar y salida oficial en la cima del monte Ezkaba a las 8:00. La carrera discurre por el sendero homologado GR 225 "La Fuga de Ezcaba- 1938 -Ezkabatik Ihesa", pasando por las localidades de Garrués, Orrio, Olaiz, Olabe, Leranoz, Saigots y Zilbeti, para finalizar en Urepel.

## Sormenezko idazketa lantzeko tailerra

Izena emateko epea martxoaren 30etik apirilaren 15era egonen da zabalik, eta tailerra Naia Carlos Antsoaingo bizilagunak emanen du. Bina orduko 5 saio izanen dira, egokiak sormenezko idazketa lantzen hasi nahi duten guztientzat. Ez dira saio teorikoak izanen, elkarrekin irakurriz, hitz eginez eta idatziz ikasteko leku bat baizik. Saio guztietan, gainera, liburuak irakurriko dira, tailerraren denboran iruzkintzekoak; beraz, toki aproposa izanen da elkarrekin eztabaidatu eta irakurtzeko. Liburuetako pasarteak izanen dira langai, bai eta idazleak ere, oso lagungarriak galderak egiteko, inspirazioa hartzeko eta geure istorioak nola kontatu nahi ditugun pentsatzeko.

## Taller de escritura creativa

Del 30 de marzo al 15 de abril estará abierto el plazo de inscripción para el taller que imparte la vecina de Ansoáin Naia Carlos. Serán 5 sesiones de dos horas en las que cualquiera podrá iniciarse en la escritura. No son sesiones teóricas, sino un lugar donde aprender leyendo, hablando y escribiendo de manera colectiva. Todas las sesiones estarán acompañadas de bibliografía, que se comentará en el tiempo de taller, convirtiéndolo en un espacio de debate y lectura común. Se trabajará con fragmentos de libros, autoras y autores que ayudarán a plantear preguntas, inspirarse y pensar en cómo queremos contar nuestras propias historias.

# Errekadisten lanari buruzko antzezlana

# Un acercamiento a la figura de las recadistas

Hainbat herritan egiten duen bezala, Bitsa Konpainiak bitartekaritza jarduera bat burutu zuen Ostoki Zentroan, joan den martxoaren 5ean, "Ni errekadista nintzen" antzezlana aberasteko. Lana Euskal Herrian sortze bidean diren taldeendako Karrika plataformaren 2025/26ko deialdian hautatu zen, eta Antsoaingo Udala programan kide denez, bitartekaritza saio bat antolatu da esperientziak, oroitzapenak, pasadizoak edo kontakizunak antzezlanerako berreskuratzeko, parte-hartzaileei entzuteko eta, aldi berean, taldearen lan prozesua baloratzeko.



Lanean zer gai jorratzen den kontuan harturik, Antsoaingo saioa 15 emakumez osaturiko adinekoen antzerki taldearekin egin zen. Estreinaldia maiatzean eginen da eta, irailean, berriz, Antsoainera iritsiko da *errekadista* direlakoen figura ezagutzera emateko. Gehienak emakumeak izan ziren, jende garrantzitsua iraganeko kale giroan, hainbat lan egiten baitzituzten ofizio batean hasi baino lehen.

El Centro Ostoki acogió el 5 de marzo una actividad de mediación que lleva a cabo Bitsa Konpainia en diferentes localidades para enriquecer su obra "Ni errekadista nintzen". La obra fue seleccionada en la convocatoria de 2025/26 para compañías de calle emergentes de Euskal Herria de la plataforma Karrikan, y al ser el Ayuntamiento de Ansoáin parte del programa, se ha organizado una sesión de mediación con el objetivo de recuperar experiencias, recuerdos, anécdotas o relatos para la obra, escuchar a las participantes y valorar a su vez el proceso de trabajo de la compañía.

En Ansoáin, y debido al tema que tratan en la obra, se hizo con el grupo de teatro de mayores, en el que participan unas 15 mujeres. El estreno será en mayo, y en septiembre la obra visitará Ansoáin para dar a conocer la figura de las *recadistas*. En su mayoría mujeres, fueron figuras importantes en el ambiente callejero del pasado, que realizaban trabajos diversos antes de dedicarse a un oficio.



## HEZKUNTZA / EDUCACIÓN

### Antzerkiaren bidez ikasteko aukera / Aprender a través del teatro




Iazko harrera ona ikusirik, aurten ere Ezkaba ikastetxe publikoak antzerki ikastaroa antolatu du lehen hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako ikasleentzat. Garazi San Martín antzezle eta antzerkigileak emanik, urtarriletik apirilera burutu da eta helburu izan du ikasleen ahozko hizkera lantzea, hiztegia zabaltzeko eta ahoskera hobetzeko. Antzerkiak, gainera, ikasleen sormena, irudimena eta adierazpena akuilatzeaz gain, haien konfiantza eta autoestimua hobetzen ditu, bai eta entzute aktiboa, errespetua eta talde lana ere.

Tras la buena acogida del año pasado, el Colegio Público Ezkaba ha vuelto a organizar un curso de teatro para el alumnado de 1º, 2º y 3º de Primaria. Impartido por la actriz y autora teatral Garazi San Martín, se ha desarrollado de enero a abril y tiene como objetivo que el alumnado trabaje el lenguaje oral, ampliando el vocabulario y mejorando la pronunciación. Además, el teatro estimula la creatividad, imaginación y expresión del alumnado, mejora su confianza y autoestima y la escucha activa, el respeto y el trabajo en equipo.

# KULTUR JARDUERAK
# ACTIVIDADES CULTURALES

## 2026
## APIRILA - ABRIL

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

RED DE TEATROS DE NAVARRA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

---

**17**
**ostirala**
**viernes**

**DANTZA**
**DANZA**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

20:00 (50 min.)

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto

PREZIOA / PRECIO
**€ 6,00**



### ETENA DENA
*Olatz Larunbe*

DNA '26 FESTIVALDNA.COM

Unearen premian harrapatuta bizi gara. Bertigo etengabe batek garamatza, oraina kontsumitua izateko bakarrik existituko balitz bezala. Dena da orain. Dena gutxi da. Oraintxe bertan da. Dena iheskor bihurtzen da, ez da nahikoa. Zer gertatuko litzateke oraina premiazkoa ez balitz, presentzia baizik? Zer gertatuko litzateke eszena, presari aurre egiteko modu bat balitz, denbora gorputzarekin ukitu eta betierekoa egiteko modu bat, segundo batzuez besterik ez bada ere? Eta... zer gertatuko litzateke gelditzen jakingo bagenu?

Vivimos atrapadas en la prisa del instante. Un vértigo continuo nos arrastra, como si el ahora solo existiera para ser consumido. Todo es ya. Todo es poco. Todo es ahora mismo. Todo se vuelve fugaz, insuficiente. ¿Qué pasaría si el ahora no fuera urgencia, sino presencia? ¿Qué pasaría si la escena fuera una forma de resistir la prisa, de tocar el tiempo con el cuerpo y hacerlo eterno, aunque solo sea por unos segundos? Y… ¿qué pasaría si supiéramos detenernos?

---

**18**
**larunbata**
**sábado**

**MUSIKA**
**MÚSICA**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

### ANTSOAINGO MUSIKA ESKOLAKO BIG BAND + OIBARKO BANDA
### BIG BAND DE LA ESCUELA DE MÚSICA DE ANSOÁIN + BANDA DE AIBAR

19:00 (50 min.)

Publiko guztiak
Todos los públicos

Doan, aretoa bete arte
Gratuito hasta completar aforo



---

**19**
**igandea**
**domingo**

**ANTZERKIA**
**TEATRO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

18:00 (60 min.)

3 urtetik aurrera
A partir de 3 años



PREZIOA / PRECIO
**€ 4,00**

**EUSKARAZ / EN EUSKERA**

### ELARA, BIDAIA BAT IZARRETARA
*Mar Mar Teatro*

Elarak goizegi ezagutuko du galera hitzaren esanahia. Bere gertuko bat izarren hauts bihurtuko da. Galaxiak eta planetak zeharkatuz, bidaia espazial bezain espeziala egingo du bizitzaren zentzua ulertu nahian. Horretarako doluaren faseak (eta desfaseak) zeharkatu behar baditu ere.

Elara conocerá demasiado pronto el significado de la palabra pérdida. Alguien cercana a ella se convertirá en polvo de estrellas. Atravesando planetas y galaxias, emprenderá un viaje tanto espacial como espacial en busca del sentido de la vida, aunque para ello tenga que superar las fases (y desfases) del duelo.

# KULTUR JARDUERAK / ACTIVIDADES CULTURALES



## 21 asteartea martes

**ZAINTZAK CUIDADOS**

Ostoki Zentroa
Centro Ostoki

17:30 (120 min)

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**



Izen-ematea apirilaren 7tik 16ra
Lapurbide Zentroan
Inscripciones en el Centro Lapurbide
del 7 al 16 de abril

### MIRANDO EL DUELO Y LAS PÉRDIDAS

*Asociación Goizargi Elkartea*

## 25 larunbata sábado

**BAKARRIZKETA MONÓLOGO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

20:00 (70 min)

Familientzat
Público familiar

PREZIOA / PRECIO
**€ 7,00**

**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**



### PALOMA DE PARQUE

*Clara Ingold*

"Paloma de parque" Clara Ingolden bakarkako bigarren ikuskizuna da, norberaren eta gizartearen suntsiketat hitz egiten duena. Umorez azaltzen dituen pasadizo eta bizipen pertsonaletatik abiatuta, bere belaunaldiaren arazoez mintzo da, gu guztiok gizarte gisa inplikaturik.

"Paloma de parque" es el segundo espectáculo en solitario de Clara Ingold que versa sobre la autodestrucción, como individuos y como sociedad. A partir de anécdotas y vivencias personales explicadas en clave cómica, Clara Ingold habla de los problemas de una generación, la suya, que nos implican a todas y todos como sociedad.

## 26 igandea domingo

**ANTZERKIA TEATRO**

Antsoaingo Antzokia
Teatro Ansoáin

18:00 (60 min.)

2 urtetik aurrera
A partir de 2 años

PREZIOA / PRECIO
**€ 4,00**



**GAZTELANIAZ / EN CASTELLANO**

### GIRA EL MUNDO, CARACOL

*Teatro Arbolé*

Barraskilo txiki bat dator mundura. Dena du deskubritzeko, basoa, beste biztanleak, egunak, gauak, negua, uda eta, batez ere, adiskidetasuna. Gure barraskiloak beste pertsonaien eskutik dena deskubrituko du abentura txiki handien artean.

Un pequeño caracol viene al mundo. Tiene todo por descubrir, el bosque, los otros habitantes, los días, las noches, el invierno, el verano y, sobre todo, la amistad. Nuestro caracol lo descubrirá todo de la mano de los demás personajes en medio de pequeñas grandes aventuras.

**29**
**asteazkena**
**miércoles**

Liburutegia
Biblioteca

17:30ean, 3 eta 9 urte bitartekoentzat
17:30 De 3 a 9 años



## KOLORETAKO IPUINAK
*Jaione Urtasun*

Doako sarrera
Entrada libre

EUSKARAZ /
EN EUSKERA

**29**
**asteazkena**
**miércoles**

AURKEZPENA
PRESENTACIÓN

Liburutegia
Biblioteca

18:30 (70 min.)

Publiko guztiak
Todos los públicos



## ESNATU ALA HIL
*Garikoitz Goikoetxea*

Doako sarrera
Entrada libre

EUSKARAZ /
EN EUSKERA

# HARROBI

### APIRILAK 18 ABRIL

**ANTZARA JOLAS ERRALDOIA /**
**JUEGO DE LA OCA GIGANTE**

17:00 h.

Izen emateak apirilaren 16ra arte. LHko 6. mailatik aurrera

Inscripciones hasta el 16 de abril. Desde 6º de Primaria en adelante

# BERDINTASUNA / IGUALDAD

### MAIATZAK 9, 16, 23, 30 MAYO

**EZAGUTU ETA ZAINDU ZURE PELBIS-ZORUA TAILERRA (AURRERATUA) /**
**TALLER CONOCE Y CUIDA TU SUELO PÉLVICO (AVANZADO)**

CENTRO OSTOKI ZENTROA

Izen ematea apirilaren 27tik maiatzaren 4ra arte 012 telefonoaren bidez. Prezioa: 20 euro

Inscripciones del 27 de abril al 4 de mayo a través del teléfono 012. Precio: 20 euros

### APIRILAK 20 ABRIL

**BERDINTASUNEZKO MASKULINITATEEN TAILERRA (aurkezpena) /**
**TALLER DE MASCULINIDADES IGUALITARIAS (presentación)**

17:30 h. CENTRO OSTOKI ZENTROA

Tailerraren datak: maiatzaren 4, 11, 18 eta 25, Ostoki Zentroan

Fechas del taller: 4, 11, 18 y 25 de mayo, en el Centro Ostoki

Izen emateak apirilaren 20tik 29ra arte 012 telefonoaren bidez. Prezioa: 15 euro

Inscripciones del 20 al 29 de abril a través del teléfono 012. Precio: 15 euros


idaki
EKAINA
IGERIKETA INTENSIBOA
NATACIÓN INTENSIVOS
JUNIO
AURREINSKRIPZIOA
Maiatzaren 4tik 14ra
PREINSCRIPCIÓN
del 4 al 14 de mayo
+info
948 14 07 82 - kirolak@ansoain.es
www.idaki.es
ANTSOAIN
ANSOÁIN
UDALA · AYUNTAMIENTO